



Euskaldunen euskara-gaitasunaren eragina euskara-gaztelania kode- alternantziaren erabileran

Egilea: Mikel Pérez González (EMUN)

Zuzendaria: Amaia Munarriz Ibarrola (UPV/EHU)

2024ko otsailaren 29a



Aurkibidea

0. SARRERA	3
1. KODE-ALTERNANTZIAREN IKERKETA.....	5
2. EUSKARA-GAZTELANIA HIZKUNTZA UKIPENA.....	8
2.1. Euskarari buruzko zenbait datu soziolinguistiko.....	9
2.2. Euskara-gaztelania kode-alternantzia.....	12
3. IKERKETA-GALDERAK ETA AURREIKUSPENAK.....	18
4. METODOLOGIA	19
4.1. Parte-hartzaileak.....	19
4.2. Datuen analisia.....	21
5. EMAITZAK.....	21
5.1. Zein da euskara-gaitasunaren eragina KAren erabileran?.....	21
5.2. Zer eragin du euskaldunen euskara erregistro konpetentziak/erabilerak KAren erabileran?	23
5.3. Zein da euskaldunen euskara mailaren autopertzepzioaren eragina KAren erabileran? ..	24
5.4. Euskaldunen euskara erabilera eta kode-alternantziaren erabilera.....	25
5.5. Euskaldunen euskara-gaitasunaren araberako KA erabiltzeko arrazoiak.....	26
6. EZTABAIDA	27
7. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK	30
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	32
9. ERANSKINA.....	40
9.1. GALDETEGIA	40

0. SARRERA¹

Kode-alternantzia (KA) hizkuntza ukipenaren ohiko fenomeno da hizkuntza komunitate elebidunetan, eta horrela izan da definitua: «kode alternantzia elebidunek beren bi hizkuntzen artean esfortzurik gabe txandakatzeko duten gaitasuna da» (Bullock & Toribio, 2009, 1. or.), edo, KA hiztun elebidun edo eleaniztun batzuek diskurtso berean bi hizkuntza edo gehiago konbinatuz egiten duten *komunikazio ekintza* da (Garin & Corral, 2017, 161. or.). Adibidez: *Nengoen* alau del ambulatorio *yoateko* (Ibarra, 2011, 287. or.).² KAren “praktika eremua” idatzizkoa zein ahozkoa izan daiteke (Zulaika, 2019; Ibarra, 2020) eta honen emaitza askotarikoa da, baina, hainbat ikerketek erakutsi dute hizkuntzak ez direla nolana konbinatzen; murriztapen gramatikalak daude (Poplack, 1980; Licerias *et al.*, 2008). Era berean, hizkuntzak konbinatzeko modu bat baino gehiago dago eta hiztunek duten ekoizpen maiztasuna, ekoizpen modua eta fenomenoarekiko jarrera ez da bera (Poplack, 1980; Anderson & Toribio, 2007; Bullock & Toribio, 2009; Gardner-Chloros, 2009; Mad’arová, 2020). Alegia, KAren erabilera oso zabaldua dagoen arren, alde handia dago hiztunen eta hiztun komunitateen artean (Deuchar, 2020).

KA 70eko hamarkadatik aurrera hasi zen ikergai bihurtzen (Muñoa, 2002), eta lehen lan ezagunak 80ko hamarkadan egin ziren ingelesa eta gaztelaniari buruz. Izan ere, fenomeno alboratua eta estigmatizatua izan da KA, hizkuntzalarien artean gaitasun elebidunaren indize gisa ikus badaiteke ere, publiko orokorrak maizago hautematen baitu hizkuntzaren degenerazioaren adierazle moduan edo hizkuntza ondo ez menderatzearen ondorio moduan (Bullock & Toribio, 2009). Horrenbestez, bereziki hezkuntza-inguruneetan ikasle elebidunen arteko KA desagerrarazteko ahaleginak egin (izan) dira, eta egoera batzuetan ekoizpen hau gaitasun kognitibo negatiboaren isla dela interpretatu da (Bullock & Toribio, 2009).

Lan honen abiapuntua 2022ko Master Amaierako lana da (Pérez, 2022). Orduan KAren erabileran zein jarreran eragina izan dezaketen askotariko ezaugarriak identifikatu

¹ Ikerketa honek Euskaltzaindiaren Mintzola beka jaso zuen eta horri esker burutu da. Bestalde, txosten honetan ageri diren asko Arabako Foru Aldundiari aurkeztutako Henrike Knörr beka luzapenari dagokion lanetik ekarri dira. Era berean, lan hau ELEBILAB ikertaldeari esker ere burutu da (HIJE-2, Eusko Jaurlaritza: IT-983-16 eta HIJE-3, Eusko Jaurlaritza: IT167-22), eta bereziki bertako kide den Amaia Munarriz Ibarrola UPV/EHUko irakasle-ikertzaileari esker. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet parte-hartzaileei ere bai.

² Beti ez da erraza KAren eta bestelako hizkuntza kontaktu fenomenoaren artean bereiztea (Muñoa, 2002; Sinner, 2008; Bullock & Toribio, 2009; Gardner-Chloros, 2009; Aiestaran, 2023); KAren beraren esanahiaren inguruan ere eztabaida dago (Bullock & Toribio, 2009). Edonola ere, hori lan honetako helburuetatik kanpo geratzen denez, ez naiz eztabaida horretan sartu.

nituen, nagusiki lehen hizkuntza edo H1, testuinguru soziolinguistikoa eta hizkuntza-gaitasuna. Lana burutzeko 18-30 urte bitarteko 244 euskara-gaztelania gazte elebidunen online galdetegi bateko galde-erantzunak aztertu nituen. Emaitzei erreparatuta, ikusi nuen testuinguru soziolinguistikoak, lehen hizkuntzak eta hizkuntza gaitasunak eragina dutela KAren erabileran eta jarreran. Lan horren osagarria izan zen hurrengo urtean egin nuen azterlana (Pérez, 2023). Ondorioz, oraingo lan honen helburua da, alde batetik, Pérezen (2022, 2023) jarraipena egitea, eta bestetik, orain arte baino zorrotzago arakatzea euskaldunen euskara-gaitasunak KAren erabileran eraginik duen, eta, eraginik badu, zer nolakoa duen. Horretarako, galdetegi bereko (Pérez, 2022, 2023) 305 euskaldunen erantzunak izan ditut oinarri.

Argi gera bedi euskaldunen KAri buruz ari naizenean, (nagusiki) euskaraz egin bitartean gaztelania txertatzeari buruz hitz egiten ariko naizela; (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean euskara txertatzeari buruz ere datuak jasota baditut ere, ez da hori txosten honen ikergaia izango. Bien arteko ekoizpen maiztasun erkaketari begira, lanek erakusten dute euskara egin bitartean gaztelania gehiago txertatzen dela gaztelania egin bitartean euskara txertatzearen aldean, hots, lehenengoa bigarrena baino hizkuntza praktika ohikoagoa da (adb.: Igartzabal, 2014; Hernandez et al., 2020; Pérez, 2022).

Hizkuntza gaitasunaren eraginari buruz, parte-hartzaileei euskara-gaitasuna eta gaztelania-gaitasuna jaso badiet ere, lan honetan euskara-gaitasunari erreparatu diot, gaztelania-gaitasunari ez, ordea, lan honen ikergaiak euskara-gaitasunari bakarrik erreparatu nahi baitio.

Txostenaren egiturari dagokionez, 1. atalean KA hizkuntza fenomenoaz eta haren ikerketaz hitz egingo dut, labur. Ondoren, 2. atalean, euskara-gaztelaniaren hizkuntza ukipenaren inguruan mintzatuko naiz, euskararen egoera soziolinguistikoaren gaineko zertzelada batzuk emanez eta euskara-gaztelania KAren inguruko argazki orokorra partekatuz. 3. atalean, lan honen ikerketa helburuak eta horien araberrako aurreikuspenak zehaztuko ditut, eta, jarraian, 4. eta 5. ataletan hurrenez hurren, ikerketa helburuei begira erabili dudana metodologia eta jasotako lagina partekatuko ditut eta helburuen eta aurreikuspenen arabera antolatutako emaitzak ekarri. Ostean, literatura zientifikoa eta emaitzak esku artean, horien arteko eztabaida zientifikoa garatuko dut. Amaitzeko, 7. atalean, lanaren ondorioak eta aurrera begirakoak aipatuko ditut.

1. KODE-ALTERNANTZIAREN IKERKETA

KAren ikerketari hiru ikuspegitatik heltzen zaio (Bullock & Toribio, 2009): ikuspegi linguistiko-teorikotik, ikuspegi soziolinguistikotik eta psikolinguistikotik. Lehenengo ikuspegiaren helburu nagusia da hizkuntza-maila desberdinetan (fonologia, morfologia, sintaxia, semantika) alternantzia duten egituren ezaugarriak aztertzea; bigarrenarena KAn eragina duten gizarte-alderdiak arakatzea (erabilera gutxitzea edo areagotzea eragiten duten aldagaiak, etab.); azkenik, hirugarren hurbilketak KA ekoizteko, ulertzeko eta eskuratzeko mekanismo kognitiboak ditu ikergai (lehen hizkuntza, gaitasuna, kontrol kognitiboa, etab.). Lan honek ikuspegi soziolinguistikoa eta psikolinguistikoa uztartzen ditu.

Ikuspegiaren arabera, KAri buruzko azterketak hainbat metodologiaz baliatzen dira (behaketatik hasi eta esperimentaletaraino), eta alderdi hauek neurtzen dituzte nagusiki: KAren erabilera maiztasuna, KArekiko onargarritasuna, KAren kostu kognitiboa-eta, testuinguru soziolinguistikoaren edota erabilera-esparru moten eta KAren arteko harremana, hiztunen ezaugarri psiko-soziolinguistikoaren eta KAren arteko erlazioa, KAren hizkuntza-ezaugarriak, hala nola KA motak (esaldi artekoak, esaldi barnekoak, etiketa bidezkoak eta hitz barrukoak), eta KA egitura mistoen ezaugarriak (adibidez, generoa DS nahasietan).

Edonola ere, hurbilketa bat izan zein beste, elebidunen profilak ahalik eta zehatzen ezaugarritzea komeni da (adb.: Bullock & Toribio, 2009; Gardner-Chloros, 2009; Balam & Shelton, 2023; Iurrebaso, 2023). Psikolinguistikako ikerketek erakutsi dute elebidunen hizkuntza-gaitasunean eta garapenean hainbat faktorek eragiten dutela, besteak beste, hizkuntzez jabetzeko adina, hizkuntza erabilera, input kopurua eta input kalitatea (Barreña et al. 2011; Montrul, 2012; De Houwer, 2021). Izan ere, elebidunen konfigurazioa ez da bat eta bera, eta aintzat hartu behar da hizkuntzak noiz eta nola ikasi diren eta baita hizkuntzen gizarte egoera edo estatusa zein den ere (ea ikergai ditugun hizkuntzak gizarte hizkuntzak --*Social language*-- diren edo ez, esaterako).

Hain zuzen ere elebidunen edo eleaniztunen praktika ohikoa dugu KA, eta praktika honetan eragiten duten aldagaiak psikolinguistikoagoak edo soziolinguistikoagoak izan daitezke. Faktore eragileen artean bada oso eztabaidatua izaten den bat: hizkuntza gaitasuna. Eztabaida dago KA zenbateraino har daitekeen bi

hizkuntzak bereizteko ezintasunaren adierazletzat (Volterra eta Taeschner, 1978, Mad'arová, 2020) edo, aldiz, elebidunen gaitasun gehigarriaren ezaugarritzat (Poplack, 1980; Oktavia, D., & Trisnawati, 2020). Adibidez, azterketa batzuek iradokitzen dute haur elebidunen KA eredueta inguruan dituzten praktika soziolinguistikoek dutela eragina eta ez hizkuntza nagusian duten gaitasuna (Hofweber et al., 2023). Bestalde, Yow-ek eta besteren esanetan (2018), baliteke haurrek KA erabiltzea hizkuntza garapenerako laguntza gisa, beren hizkuntza ahulagoaren mesedetan (hiztegia, gramatika garapena, ulermen gaitasun).

KAren erabilerak gutxienez bi hizkuntzatan nolabaiteko hizkuntza gaitasuna izatea adierazten duela argi dago, baina hizkuntza bakoitzeko hizkuntza-gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko harremana konplexua dirudi. Halaber, esatekoa da hizkuntza garapenean hizkuntza arazorik ez dutenek zein badutenek, biek erabiltzen dutela KA (Kaushanskaya & Crespo, 2019). Hizkuntza gaitasunarena aldagai konplexua da (Schächinger Tenés et al., 2023); ohiko trebetasunak dituzten haurrek gizartean nagusi den hizkuntzara aldatzeko joera handia dute, eta trebetasun gutxiagoko haurrek, berriz, oso gutxitan aldatzen dute gizarte-hizkuntzara. Aldalbahy-ren lanean (2023) hiztunen hizkuntza gaitasunak KAren ekoizpen motan eragina duela ikusten da, baina KAren maiztasunean ez.

KAren erabilerari begira kontuan hartu beharreko beste aldagai bat jarrerena da. Jarrera portaeran eragiten duen faktoreetako bat den arren (Parafita Couto et al., 2015), ez dirudi bi aldagaien arteko harremana beti zuzena denik (Chrissunday, 2016). Hizkuntza-jarrerak hizkuntza-ebaluazio gisa defini daitezke, edo, zehazkiago, «hizkuntza-ebaluazioko erreakzio» gisa edo hizkuntzari buruzko ebaluazio-sinesmen gisa (Brdarević-Čeljo et al., 2021, 1. or.). Bada, KArekiko jarrerei begira, KA erabiltzen dutenak oro har portaera horretaz jabetzen dira (nahiz eta ezin duten beti identifikatu ezta aldatzeko arrazoi sinesgarririk eman ere), eta gai izan daitezke elkarrizketa bat izateko hizkuntza bakar batean oinarrituta, egoerak hala eskatzen duenean (Lipski, 2014, 24 or.). Baina, beste askotan ez dira kontziente egiten dutenik, eta fenomeno gaitzesteko joera izan dezakete, hizkuntza kutsatzen duen praktika gisa hartzen bada, edo analfabetismoarekin, ikasketa faltarekin edota hizkuntza gaitasun/konpetentzia eskasarekin lotzen bada, esaterako (Lantto, 2015; Ortega et al., 2016). Komunitate elebidun batzuetan bizi diren pertsonen KA erabiltzen dela badakiten arren, badirudi portaeraz duten kontzientzia-maila oso atzetik dagoela; subjektuei beren hizkera

grabatuan KA erakusten zaienean harridura edota lotsa adierazten dute (Gardner-Chloros, 2009, 15. or.). Aldalbahy-ren lanaren arabera (2023), hiztunek KArekiko jarrera positiboak adierazi bazuten ere, KAren erabilera hizkuntza hutsunearen edo gabeziaren sintomatzat hartu zuten. Beste gai interesgarri bat hiztunek beste hiztunen KAren erabilera maiztasunaren inguruan duten pertzepzioarena da; Aldalbahyren lanean oinarrituta (2023), gaitasun altuagoa dutenen pertzepzioa da hizkuntza maila baxuagokoek altuagokoek baino KA gehiago erabiltzen dutela. Antzekoa erakutsi zuen Lantto ere euskararekin (Lantto, 2015).

Londreseko zipretar greko komunitatearen inguruko azterketa batek jarrera positiboak erakutsi zituen alternantziaren aurrean, eta aldeak agertu ziren hezkuntzaren, talde okupazionalaren eta adinaren arabera; adibidez, elkarrizketatuen ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta KArekiko jarrera negatiboagoa aurkitu zen (Gardner-Chloros, 2009). Bestela, elkarrizketatu gazteenek zaharrenek baino gutxiago gaitzetsi zuten KAren erabilera, eta, zaharrenek baino baliagarriago ikusi zuten KA. Estatu Batuetako gaztelania-ingeles elebidunen artean (Anderson & Toribio, 2007), gaztelania-gaitasun baxukoek (elebidun ez-orekatuek) elebidun orekatuek baino KArekiko jarrera okerragoa erakutsi zuten.

Hiztunen KAren erabileraren eta praktika horren ondoriozko kostu kognitiboaren arteko harremana ere ikergai da (Han et al., 2022); lan batzuek kontrol exekutiboetan edota kostu kognitiboetan onurak aurkitu dituzte KAren erabileraren ondorio gisa, baina beste azterlan batzuek ez dute horrelako ondoriozko atera.

Bestalde, zenbait ikerketatan ikusten da elebidun desorekatuek beren hizkuntza nagusian ari direnean KA gutxiago erabiltzen dutela, beste ikerketa batzuek, ordea, ez dute erlaziozko aurkitu, eta gauza bera KA motaren eta hizkuntza gaitasunaren artean (adb.: Poplack, 1980; Lantto, 2012; Epelde & Oyharçabal, 2010): hizkuntza gaitasun apalagoa dutenek esaldi arteko KA edo etiketa bidezko KA gehiago ekoizteko joera dute eta gaitasun altuagoa dutenek esaldi barneko KA, baina ez da beti hori identifikatu ikerlanetan (adb.: Rodrigo, 2020). Honekin guztiarekin batera, aintzat hartu behar dugu batzuetan faktore soziokulturalak psikolinguistikoak baino eragileagoak izan daitezkeela.

KA esaldiekiko onarpen juzkuetara salto eginez, ikusten dugu hiztunen juzkuak ez dituela kaosak azaltzen, izan ere, hizkuntzen ezaugarrien arabera, hizkuntzen gramatikaren arabera, hiztunen profil psiko-soziolinguistikoren arabera... aukera batzuk edo beste balioetsi ohi dituzte hobeto eta okerrago, adibidez, genero gramatikala duen

hizkuntza bat generoa ez duen hizkuntza batekin konbinatzean (Liceras et al, 2008; Iriondo, 2017).

KA noiz-nola-zergatik erabili galde-erantzun horien bueltan, proposatu da, adibidez, elebidunek hizkuntza-nortasun bikoitza duten beste elebidun batzuekin soilik erabiltzen dutela KA (Bullock & Toribio, 2009). Bestalde, KA gehien egoera lasaietan edota informaletan erabiltzen da (Gardner-Chloros, 2009), esate baterako, Brdarević-Čeljo et al. lanean (2021) parte-hartzaileek kodez aldatzeko joera handiena lagunekin agertu zuten, gero lankideekin eta eskolakoekin, eta gutxiagotan familiakoekin. Ingurune eleaniztun batean bizi diren edo atzerrian bizi ziren edo hizkuntzaren/kulturaren aldetik plurala den ingurune batean hazi diren eleaniztunek maizago erabiltzen dute KA (Brdarević-Čeljo et al., 2021). Sardinian, elebidun orekatuenak dira KA gehien erabiltzen dutenak, sardoari eusteko. Komunitate berean, belaunaldi gazteenetan zaharrenetan baino ohikoagoa da KA, baina, adibidez, ez da segurua hezkuntzarik gabeko pertsonen hezkuntzadunek baino gehiago erabiltzen dutenik KA; zenbait kasutan, kontrakoa frogatu da (Gardner-Chloros, 2009).

Ikuspegi pragmatiko batetik KA erabiltzearen funtzioak askotarikoak dira elebidunen artean, halere, nagusiki honako hauek aipatzen dira (Bullock & Toribio, 2009): hitzorduak markatzeko, enfasirako, hizketaren rolak nabarmentzeko, errepikatzeko, esaldiren bat itzultzeko/zuzentzeko, rol aldaketaren bat markatzeko edo gai hasiera markatzeko, hizkuntza gaitasun eza konpentsatzeko, etab. Bestetik, elebidunek kodea alda dezakete beste modu batera hitz egin ezin dutelako edo ezin dutelako bestela hitz egin ikasketa prozesuan daudelako edo kompetentzia eza dutelako (Bullock eta Toribia, 2009; Mad'arová, 2020; Bereziartua et al., 2023).

2. EUSKARA-GAZTELANIA HIZKUNTZA UKIPENA

Hego Euskal Herrian dagoen euskara eta gaztelaniaren arteko hizkuntza-ukipena asimetrikoa da, bien artean botere harremana dago: gaztelania hizkuntza hegemonikoa da eta euskara hizkuntza gutxi(ago)tua (Moreno Cabrera, 2015; Torrealdei, 2018). Elebidunen artean ere asimetria dago: euskaldun guztiak elebidunak dira, baina hiztun askok ez dakite euskaraz. Hizkuntza bi horien harremana eta estatusa nolakoa den ulertzea funtsezkoa da bi hizkuntza horien arteko KA fenomenoak ulertu ahal izateko. Hortaz, jarraian euskararen egoera soziolinguistikoaren berri emango dut eta gero, euskara-gaztelania Kari buruzko ikerlanen berri.

2.1. Euskarari buruzko zenbait datu soziolinguistiko³

16 urtetik gorako euskal herritarren % 30,2 euskalduna da eta % 16,1 euskaldun hartzailea (EAS). Azken inkesta soziolinguistikoaren arabera (Nafarroako Gobernua, 2021, Eusko Jaurlaritza, 2023), EAEn euskaldunak % 36,2 dira eta euskaldun hartzaileak % 18,6: Gipuzkoan dago euskaldun gehien (% 51,8), gero Bizkaian (% 30,6) eta azkenik Araban (% 22,4). Adinari dagokionez, euskaldun gehien adin gazteenetan dago, 16-24 urte bitartean (% 74,5). Bestalde, 5 urtetik gorako biztanleriari erreparaturik (EAS), Araban % 30,1 euskalduna da eta Gasteizen % 28,9.⁴ Nafarroa Garaian euskaldunak % 14,1 dira eta euskaldun hartzaileak % 10,6.

Euskaldunen profila asko aldatu da azken urteetan, gaur egun EAEko euskaldunen % 55,4 lehenengo eta bigarren gunen soziolinguistikoetan bizi da, lehen ez bezala, hau da, gaur egun euskaldun gehienak testuinguru erdaldunagoetan (euskaldunak % 50etik behera diren herrietan) bizi da euskaldunagoetan (euskaldunak % 50etik gora diren herrietan) baino. Beste ezaugarri azpimarragarri bat hizkuntza gaitasunean dugu: Euskal Herriko euskaldunen artean euskara-gaitasuna nagusi duten hiztunak % 7,9 dira, 212.838 hiztun, alegia (Iurrebaso, 2023); eta elebidunari normalean hobekien darabilen hizkuntza irudituko zaio errazen/egokien erabiltzeko. Horregatik euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenek ageri dute euskararen erabilera handiena --euskara nagusi den auzo-udalerrietan ekoizten dira beste inon baino gehiago tankera horretako hiztunak-- (Iurrebaso, 2023). Hizkuntza maila edo gaitasuna eta hizkuntza erabilera elkarreraginean dauden aldagaiak dira.

Euskararen erabilera aitortuari dagokionez, euskararen erabilera trinkoa (euskara erdaraz beste edo gehiago hitz egiten dutenak) % 22koa da; Arabakoek dute euskararen erabilera trinkorik baxuena (%7,8) eta Gipuzkoakoek dute altuena (% 40,8) EAEn. Gazteek erabiltzen dute euskara gehien (%33,5) eta gutxien 65etik gorakoek (% 16,7), duela 30 urte alderantziz gertatzen zen. Esan behar da azken 30 urteetan orotara 6,4 puntu egin duela gora euskararen erabilera aitortuak; gora egin du erabilerak esparru guztietan

³ Hizkuntza errealitate soziala ez da homogenea eta tokiaren arabera eta gizarte-arloaren arabera ezberdintasun nabarmenak daude.

⁴ Iñaki Iurrebasori EMUN barrurako hitzaldi/ikastaro batean entzundakoa da hau: datu aitortuen eta datu errealean artean margena dago; datu aitortuetan norbere hizkuntza atxikimenduak, zuzentasun politikoak... aitortzen den horretan eragina izan dezakete. Hala ere, jakitekoa da margen/puzte handiagoa egoten dela gaitasunari buruzko erantzunetan erabilerari buruzkoetan baino, eta erabileraren barruan, puzte handiagoa egoten dela galdera orokorretan egoera komunikatibo konkretuetan baino.

eta bereziki eremu formalean. Nafarroa Garaian euskararen erabilera trinkoa % 6,8koa da. Inkesta emaitzekin bukatzeko, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerei erreparatu, 1991tik 2021era 12 puntuko hazkundea egon da EAEn. Aldeko jarrera % 67k dute egun. % 63,2k interes handia edo nahiko handia du euskararekiko. Nafarroa Garaian euskara sustatzearen aldeko jarrera % 30ek du.

Euskararen azken kale-erabilera neurketaren arabera (Soziolinguistika Klusterra, 2022), Euskal Herriko kaleetan elkarrizketen % 12,6 euskaraz dira, 2016an bezala. Gipuzkoan egiten da berba gehien euskaraz (% 31), gero Bizkaian (% 9). Araban, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian euskararen kale-erabilera % 5-6 ingurukoa da. 1989tik aurrera, euskararen kale-erabilerak gora egin du adin-tarte guztietan (haurren eta gazteen adinean batik bat), salbu eta adinekoen artean. Hala ere, hizkuntza biziberritzearen auzia ez da bakarrik gazteagoen auzia (Altuna, 2023).

Generoaren arabera ere bada alderik: oro har, euskararen soziolinguistikan ikusten ari gara emakumeek gizonak baino gehiago egiten dutela euskaraz eta, oro har, emakumean gizonak baino “zaintzaileagoak direla”. Adibidez, «nesken arteko elkarrizketetan % 72,04 dira euskara hutsez egindakoak, baina taldeok mutilek osatuak edo mistoak direnean, elkarrizketen % 53,70-54,72 baino ez dira euskara hutsez egindakoak» (Bereziartua et al., 2023, 35. or.). Hitz egiteko moduan ere badira aldeak edo errepikatzen diren patroiak (Altuna, 2023); mutilek hizkera oldarkorragoa erabiltzen dute, “hizkera zatarragoa”, edo hori erabiltzeko (auto)zilegitasun handiagoa daukate; neskek baino elkarrizketa motzagoak izaten dituzte; esamolde laburrak, zirrikak, irainak... Era berean, mutilek hizketagai gutxiago izaten dituzte (kirolari eta bideo-jokoei buruz hitz egiten dute batik bat). Eta honek guztiak badu loturarik KAren erabilerarekin eta oro har gaztelaniaren erabilerarekin, gaztelaniaren erabilera txertatzea makulu erabilgarria izaten delako hiztunentzat euren diskurtsoari indarra emateko, etab. Hori guztia maskulinitateari lotuago dago (Altuna, 2023) eta eremu informalean prestigiotsuagoa da hitz egiteko modu hau.

Euskararen erabileran eragiten duten faktorerik aipatuenak hurrengoak dira: erabilera-eremuan dagoen euskararen ezagutza; testuinguru soziolinguistikoa; euskara erabiltzeko erraztasuna eta harreman sarea. Ildo beretik, hizkuntza erraztasunaren eta lehen hizkuntzaren arteko korrelazioa oso handia dela azpimarratu behar da (Bereziartua et al., 2023).

Euskaldun gehienek ez dute harreman-sare nahikoa euskara normaltasunez erabiltzeko, 25 urtetik beherako gazteen erdiek baino gehiagok etxetik kanpo ikasi dute euskara eta hiztun berri

horietako askorentzat eskola edo eskolako lagunartea da euskaraz aritzeko aukera bakarrenetakoa. Horrez gain, erdaraz (gaztelania eta frantsesa) hitz egiteko erraztasun handiagoa dutenen ehunekoek gora egiten jarraitzen dute (alegia, gehiago dira erdal elebidunak euskal elebidunak baino). Iurrebasok (2021) emandako datuen arabera, «gordin azaleratzen zaigu gaitasunean ere euskara izugarri ahul dagoela Euskal Herrian erdaren aldean (...). Hitzunen % 7,9ri bakarrik zaie errazagoa euskaraz hitz egitea erdaraz baino. (...) Haurretan ere ohiko bihurtu da gaztelaniaz zein frantsesez aritzea lagunartean, eta euskaraz dabilzaten kasuan ere, erdal lexikoa, esamoldeak, sintaxia... erabiltzea. (Bereziartua et al., 2023, 14-15. or.).

Hizkuntzaren erabileran, Zalbidek (2020) dio hizkuntza estandarrak bezain funtsezkoak direla eguneroko mintzamolde arruntak, horiek baitira maiztasun handikoenak, hiztun gehienei “berez” ateratzen zaizkienak: a) eguneroko mintzamolde arruntak hizkuntza estandarraren ukitu-eraginik ere badu; b) hiztunon ahozko jarduna ez da normalean hizkuntza estandar hutsa, eta c) ez ditu hizkuntzaren formaltasun-, zuzentasun- eta gramatikaltasun-arauak osorik ageri. Inma Muñoaren esanetan (Euskaltzaindia, 2008, 122. or.) adibidez, «edozein hizkuntzatan eroso aritzeko gakoan artean dago hizkuntza horren erregistro bat baino gehiago erabiltzeko gai izatea»

Era berean, gogorarazi behar dugu euskalkiak vs batua dikotomiaz gain, euskalki formalak eta lagunarteko batuak ere badaudela (Legarra, 2019). Egungo lagunarteko euskarak edo euskara arruntak oinarritzko ezaugarri batzuk ditu, hala nola euskara nahasia, erdaren kalkoak sarri erabiltzea edota euskalkiak erabiltzea adierazkortasuna lortzeko. Hizkera informaltzeko baliabide posibleen artean hurrengoak dira horietako batzuk (Euskaltzaindia, 2008): hitanoa, atsotitzak, lokuzioak, hitz elkartuak, imitazioak, (beste) euskalki ezaugarriak. Euskara batua plazarako ere bada, ez eskolarako bakarrik (Larrinaga, 2020).

Hizkera-moten ugalketan eta aniztasunean gehien eragiten duten faktoreak, besteak beste, norbere euskararen ezagupen-maila, harreman-sarearen ezaugarri soziolinguistikoak, bizi den ingurunearen errealitate soziolinguistikoa nahiz linguistikoa edota taldearen identitatea, eta ideologia linguistikoa dira (Amonarriz 2008). Ibarrak (in Balda 2022) beste hainbat faktore ere aipatu ditu: atxikimendu soziala, gazteen egoera historikoa, egoera psikikoa, gazteen sexua eta etnia. (Bereziartua et al., 2023, 20-21. or.).

Kezka dago euskaldunen euskara kalitatearen eta euskara kompetenziaren edo mailaren inguruan (adb.: Euskararen Aholku Batzordea, 2004; ISEI-IVEI), eta azkenaldi luze honetan bereziki ahozko komunikazioan jarri da arreta gehiena. Ahozko komunikazioaren lanketaren garrantziaz hurrengoek ohartarazi digute besteak beste: Perez et al., 2015; Amonarriz, 2015; Dolz, 2018; Zabala, 2018. Egia da ahozkoa eta

idatzizkoaren artean continuum konplexua dagoela, baina ahozko hizketak badu berea, baditu bereak diren ezaugarriak.

Hizkuntzen biziberritzean, eta, beraz, euskararen biziberritzean, hizkuntza ideologiak (ikertzaileenak barne) ere oso aintzat hartu behar dira, izan ere:

hizkuntzen, hizkeren eta hiztunen arteko hierarkizazioak eta legitimotasun auziak aintzat hartuz, eta gaur egun nagusitzen diren konplexu ideologikoen hizkuntzaren biziberritze-prozesurako helduleku amarrutsuak eskaintzen dituztela ikusirik, estrategikoa izan liteke, alde batetik, konplexu ideologiko hauen desnaturalizatzearan eragitea. (...) Edonola ere, eragin nahi dugun guneko eta uneko errealitatea ondo ezagutzea ezinbestekoa zaigu, baita hizkuntza-ideologiei dagokienez ere, diseinatutako hizkuntza biziberritzeko politikak eta hizkuntza-plangintzak eraginkorrak izan daitezten. (Artetxe, 2023, 476-477. or.).

2.2. Euskara-gaztelania kode-alternantzia⁵

Euskaldunen KAri buruzko ikerketetan arreta handia jarri da KAren arrazoietan (Ortega et al., 2016; Ibarra, 2020), nahiz eta hurbilketa psikolinguistikoko lanak (Parafita Couto et al., 2015; Iriondo, 2017; De Bruin et al., 2018; Munarriz-Ibarrola et al., 2022) eta linguistiko teorikokoak ere egin diren (Epelde & Oyharçabal, 2010). Hurbilketa soziolinguistikoko lanek erakutsi dute euskara eta gaztelania konbinatzea ez dela soilik testuinguru erdaldunagoetan gertatzen den fenomeno (Etxabe, 2005; Euskaltzaindia, 2008, 135. or.), ez dela bakarrik euskara-gaitasun urria duten hiztunen hizkera-ezaugarria (Euskaltzaindia, 2008; Ibarra, 2011b, 2014; Lantto, 2015, 2016; Ibarra, 2020) eta ezin dela gazteekin soilik lotu (Igartzabal, 2014; Goirigolzarri et al., 2018), nahiz eta gazteek euskara eta gaztelania hitz-txanda berean konbinatzeko joera oso nabarmena duten (Etxabe, 2005; Ortega et al., 2016, Eusko Jaurlaritza, 2016; Portal Molinera, 2022; Altuna, 2023). Horrekin guztiarekin batera, gaineratu behar dugu fenomeno hau (eta nahi bada, honekiko kezka) ez dela gaur egungoa bakarrik (adb.: Euskaltzaindia, 2022): Henrike Knörrek esaten zuen nabaria zela gaztelaniatik euskararako interferentziak haurren artean, sintaxian eta bereziki hitz hurrenkeran.

Lan berri samar baten arabera, gazte euskaldun hiztun berri batzuek behintzat KA egoera informaletan ez ezik, formaletan ere erabiltzen dute (Portal Molinera, 2022).

⁵ Euskara gaztelaniarekin konbinatzeaz gain, frantsesarekin eta ingelesarekin ere konbinatzen da (adb.: Rodrigo, 2020). Lan honetan, ordea, euskara-gaztelania konbinazioari erreparatu diot, zehazkiago (nagusiki) euskaraz egin bitartean gaztelania txertatzeari.

Baina, egoera formalagoetan ere KAren erabilera gertatzen (ahal) bada ere (Rodrigo, 2020; Portal Molinera, 2022; Torralba, 2023), badirudi egoera informagoak egokiagoak direla hizkuntza praktika hau gerta dadin (Pérez, 2022; Aiestaran, 2023, Altuna, 2023). Aiestaranek dio (2023), gainera, lagunarteko solas egoeretan familiarakoetan baino KAren erabilerarako joera handiagoa egoteaz gain, egoera horietan KA kasu (baliabide) gehiago ere badaudela familiarakoetan baino.

Gazteen artean euskara-gaztelania KA gazte-hizkera propiotzat hartzen da, eta, zentzu horretan, gazteen identitatea markatzeko ere balio dezake KAK (Ibarra, 2011; Elordui, 2016; Lantto, 2018). Erdararen erabilera sistematikoa da gazte euskal hiztunen lagun arteko elkarrizketetan (Balda, 2022). Betiere ezin dugu ahaztu, baina, gazteen hizkeraz baino, gazteen hizkerez hitz egitea egokiagoa dela (Amonarriz, 2008; Perez & Zulaika, 2016). Gazteek euskarazko elkarrizketetan erdaretako hainbat esamolde txertatzen dituzte (Amonarriz, 2008; Igartzabal, 2014; Perez & Zulaika, 2016; Legarra, 2019; Balda, 2022). Nerabeek edo gazteek abiapuntu ezberdina izanda ere, euskarak eta gaztelaniak (eta zenbaitetan ingelesak ere) eskaintzen dizkien baliabideak erabiltzen dituzte (Altuna, 2023). Nerabeek eta gazteek garbi identifikatzen dute KAren erabilera, eta nolabaiteko kontraesan moduan bizi dute, hizkuntza zuzentasunaren aurkako praktika dela iruditzen zaielako, eta era berean, euren hizkeraren beharrezko elementutzat jotzen dutelako (Altuna, 2023). Amonarrizen arabera (2018), gazteen euskara kolokialaren ezaugarriak euskara nahasia (euskalkien arteko konbinazioa eta KAren erabilera), erdarazko hitzen ordena, aditz formen erabilera okerra, azentuaren aldaketa, forma linguistiko berriak, etab. dira. Orreaga Ibarren esanetan (Euskaltzaindia, 2008), bestalde, gazte hizkerak hurrengoak ekarri ditu: euskalkien lausotzea, batuerarako joera, KAren erabilera, batuaren eta euskalki(ar)en konbinazioa, euskalkien konbinazioa, etab.

Bestalde, euskarazko jardunean gaztelaniara jotzeko arrazoiak edo helburu komunikatiboak askotarikoak direla ikusi da, lexikoan dauden hutsuneak betetzetik hasi eta diskurtso-mailako funtzio konplexuagoetara artekoak (Muñoa, 2002; Etxabe, 2005; Euskaltzaindia, 2008; Igartzabal, 2014; Lantto, 2015; Zulaika, 2019; Ibarra, 2020; Altuna, 2023). Horien artean hizkera informaltzearena asko aipatzen da; gazteek gaztelania hizkera informagoarekin eta euskara hizkera formalagoarekin lotzen dute, eta informaltasun hori lortzeko KA erabiltzen dute. Beste zenbait arrazoi eta zertarako ere aipatzen dira: zenbait egoeren inguruko azalpenak emateko, aurrez bizitako egoerak gogora ekartzeko (batak edo besteak esandako hitzak gogoratzeko), txantxa edo haserre

esamoldeak sartzeko, eremu informaleko hizkuntza jolasak egiteko, gaztelaniak hiztunen artean duen eragin/presentzia nabarmenaren ondorioz, adierazi nahi denari konnotazio berezia emateko, esandakoari adierazkortasuna emateko, hitzak leuntzeko, indartzeko, kutsu negatiboa emateko edota denbora irabazteko, oso barneratuta dauden gaztelaniazko esapide jakin batzuk sartzeko, zerbaiten izen berezia mantentzeko, emozio esapideak txertatzeko, konplizitateagatik, umorerako zein irainetarako, etab.

Altunak (2023) euskararen erabileran eta euskara hizkeretan hurrengo faktoreek eragiten dutela dio: testuinguru soziolinguistikoak, kideen hizkuntza gaitasunak, hizkuntza ohiturak eta kultura eta praktika esparruaren identitate hizkuntzak. Era berean, Lantok (2015, 2016) eta Ortégak eta bestek (2016, 2019) erakutsi dutenez, euskara asko egiten ez den testuinguru soziolinguistikoetan edo euskara erabiltzeko babes behar duten hiztunentzat (hiztun askok dute euren euskarari zerbait falta zaien sententzia –Altuna, 2023--) KA erabiltzea (edo elkarrizketa elebidunak izatea) estrategia mesedegarria edo lagungarria izan daiteke euskara erabiltzeko edo mantentzeko.⁶

Ezaugarri edo baldintza horiek dituen Bizkaiko eremu batean, Ezkerraldean, KA erabiltzeko arrazoi nagusia euskaraz aritzeko jariotasun edo gaitasun falta dela dio Portal Molinerak (2022). Emozioekin lotutako edozer adierazteko gaztelaniara jotzea oso ohikoa dela dio Baldak (2022). Halere, Altunak dio (2023, 518. or.) «zenbaitetan, hizkuntza eta hizkeren nahasketa gaitasun falta edo ezagutza-ezarekin lotuta dago, baina, gehiagotan hautu estetiko eta ideologiko bat nabari dela». Ildo horretan, KAren erabilera gazte-kultura kolektibo batekiko pertenezia aldarria ere bada (Altuna, 2023). Izan ere, euskara hutsez hitz egiteak ez du gazte garaikidearen kultura marka handirik adierazten. Horretarako erdarakadak edo baturik gabeko herri hizkerak behar dituzte gazteek (Altuna, 2023).

Euskarazko elkarrizketetan erdararen hitzak erabiltzean hiztunak bere posizioa, rola eta nortasuna erakusten ditu testuinguru jakin bakoitzean. Ez dira praktika neutroak. Zenbait testuingurutako nerabeentzat gaztelaniaz ere hitz egiten badakitela erakusteko baliagarria zaie, eta besteetan erresistentzia eta protesta keinutzat ere har daiteke. (Altuna, 2023, 518. or.).

⁶ Hiztun askori edozein aldaera edo hizkera natural eta autentiko iruditzen zaie, halere, beste askok pentsatzen dute euskalkiak batua baino naturalagoak direla, eta zenbaitentzat batua, euskararen forma estandarra, artifiziala da (Gaspar, 2020). Edonola ere, euskara batuaren eta euskalkien arteko kontrakotasuna ez da batua sortu zenean bezain handia, baina, aurrean esandakoari lotuta, badira kezagarriak diren jarrerak gaur egun ere: batua behartzen den hizkeratzat hartzea; batua dutenak presioa sentitzea euskalkidunekin aritzean; hizkeraz/hizkerez lotsatzea... (Gaspar, 2020).

KAren erabilerarekiko jarrerari dagokionez, jarrerak eta usteak ez dira berdin testuinguru soziolinguistikoaren arabera eta hiztun tipologiaren arabera (Lantto, 2018). Euskararen eta gaztelaniaren arteko identitate nahasia dutenek KArekiko jarrera positiboagoa dutela ikusi da (Lantto, 2015). Bestetik, euskaraz aritzean gaztelaniara igarotzea eta gaztelaniaz aritzean euskarara igarotzea ez da berdin epaitu ohi hiztunen begietatik; euskaratik gaztelaniara pasatzea «natural» atzematen den bitartean, alderantzizko joera bortxatu bezala ikusten (ahal) da, ez-natural (Amorrortu et al., 2019). Ildo beretik, testuinguru erdaldunagoetako hiztun batzuek pentsatzen dute KArik ez dagoela testuinguru oso euskaldunetan, non euskaldun peto-petoaren irudia oso errotuta dagoen (Lantto, 2016), eta, hiztun berri batzuek ez dute berdin epaitzen etxetik euskaldunen KAren erabilera eta etxetik kanpo euskaldundu direnen KAren erabilera: euskara H1 duten hiztunen KAren erabilera ez dute gaitasun-arazoekin lotzen (ama-hizkuntzaren ideologiaren eraginez), eta, aldiz, hiztun berrien KA gaitasun-faltarekin lotzen dute (Lantto, 2015; Ortega et al., 2016).

Gainera, eta adibidez, Bilboko gazteen autopertzepzioa beren euskararekiko negatibo samarra da, eta horrela, askok euskalkian hitz egiten dutenei inbidia diete (Goirigolzarri et al., 2018). Lanttok dio (2015, 2016, 2018) batuan egiten duten hiztunak beren hizkera estigmatizatuaren kontziente direla eta hizkuntzak banatuta mantendu nahi izatearen ideia (elebakartasunaren ideologia) indartsu samarra dela hiztun askoren kasuan. Henrike Knörrek esan zuen: «Menturaz ongi letorkiguke guztioi apaltasun pixka bat (...), denok dugu ikasi beharra, inork ezin dezake esan euskerazko prestakuntza nahikoa duela» (Euskaltzaindia, 2022, 210. or.). Halaber, KA gaitasun-faltarekin lotu ohi denez, partaide askok adierazten dute eurek ez dutela KA egiten edota ez dela egin behar (Ortega et al., 2016), nahiz eta guztiek onartu ez (Lantto, 2016). Beste batzuek, berriz, egoera informaletan diskurtso estrategia bezala erabiltzen dutela onartzen dute eta, beraz, ondo baloratzen dute. Portal Molineraren arabera (2022, 25. or.), «KA egitearen arrazoiak makina bat badira ere, gehien gailentzen dena, eremu erdalduneko euskaldunen artean, euskararen jarriotasun falta da». Bestalde:

Parte-hartzaileen aburuz, euskararen hiztun zahar batek ere KA egiten du, baina ez behar duelako, jakin badaki esan nahi duena euskaraz adierazten. Ildo beretik, parte-hartzaile batzuek aipatu dute eremu euskalduneko gazteentzat ez dela beharrezkoa KA egitea, baina ontzat hartzen dute eremu erdalduneko gazte batek KA egitea. Bestalde, parte-hartzaileen gehiengoak adierazi du eremu euskalduneko gazte batek KA egitea berdin zaiela, ongi iruditzen zaiela (Portal Molinera, 2022, 25. or.).

Euskal hiztunen KArekiko jarreretan eta usteetan eragin dezaketen faktoreen artean, hurrengoak dira zenbait (Ortega et al., 2016; Lantto, 2016): garbizaletasunaren ideologia; benetakotasunaren ideologia; zer hiztun motak duen zer egiteko zilegitasuna; euskararen egoerarekiko kezka; euskara eta gaztelaniaren arteko botere harreman asimetrikoa.

Ibarrak (2011) hizkuntza-hautuetan generoak ere eragina izan dezakeela aipatu zuen, eta generoaren eta euskararen artekoaz aurrean aipatutakoa kontuan hartuta, sakondu edo arakatu beharko litzateke KAren fenomenoan generoak ba ote duen eraginik.

Euskaldunen KAren erabilerak ikertzaileen artean kezka ere sortu izan du. Esate baterako, Igartzabalek (2014) hurrengoaz ohartarazten du:

Arriskuak ere izan ditzake honek, ordea. Kontutan hartu behar baitugu normalean kode aldaketa hizkuntza menderatzaitetik menderatura gertatzen dela. Gainera, gure kasuan bezala hizkuntza normalizatua ez baldin bada, are eta kaltegarriagoa izan daiteke ukipenaren ondorioa (Igartzabal, 2014, 10. or.).

Mikel Zalbideren ustez ere fenomenoaren tentuz hartu beharrekoa da (Euskaltzaindia, 2008), KAren erabilerak norantz egiten duen arretaz jarraituta (baturantz, gaztelaniarantz, pidgin-kreolerarantz...); bere ustez KA ez da erabilera egokia euskararen komunitatearentzat eta are gutxiago eredu egoki bakarra.

Denek, ordea, ez dute nolabait bat egiten kezka horrekin (adb.: De Bruin et al., 2018; Ibarra, 2019); badaude KA komunikazio tresna, tresna soziolinguistikoko edota tresna kognitibo gisa ikusten dutenak, kolorea eta aukera eskaintzen diona idatzizkoari eta ahozkoari. Gainera, azken aldi honetan, KA hizkuntzaren didaktikaren arloan, *translanguaging* deritzonaren barruan koka daiteke hezkuntza eleaniztunerako estrategia interesgarri gisa (Aldekoa et al., 2020). Era berean, hizkuntzak tartekatzea estrategia didaktiko egokia izan daiteke edukiak barneratzen laguntzeko, inklusioan laguntzeko eta hizkuntza ikasten laguntzeko (Mad'arová, 2020). Burmuineko lesioen ondorioz hizkuntza-arazoak agertzen direnean ere estrategia lagungarria izan daiteke KA, bai hizkuntza-berreskuratzeari begira, bai eguneroko komunikazioan aurrera egin eta funtzionalago izateko baliabide gisa (Lerman et al., 2019).

Orain arte aipatutako aurrekari hauek denak ikusita, 2023an 305 euskaldunen KAren erabilera eta jarrerak aztertu nituen. Hurrengoak dira lan hartatik ateratako hainbat ondorio esanguratsu, parte-hartzaileen datu aitortuetan oinarrituta:⁷

- Euskaldun gehienek erabiltzen dute KA, (nagusiki) euskaraz egin bitartean zein (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean. Edonola ere, euskaldun gehiagok erabiltzen dute KA (nagusiki) euskaraz berba egitean (nagusiki) gaztelaniaz berba egitean baino.
- Euskaldun parte-hartzaileen artean 5 egoera komunikatibotatik, batez beste, 1,5 egoeratan erabiltzen dute KA (nagusiki) euskaraz egin bitartean eta KA erabiltzen dutenen artean batez beste 2,27 egoeratan. Parte hartzaile guztiak aintzat hartuta, gehienek (% 74,6k) kalean/jai giroan erabiltzen dute KA, gero ikaskideen artean (% 48,9) eta lankideen artean (% 42,3) eta gutxien (% 3,7) klaseko ahokoetan erabiltzen dute. Gaztetxoekin % 32,3k erabiltzen dute KA.
- Euskara-gaitasun altuena dutenek, testuinguru soziolinguistiko euskaldunagoetakoek eta lehen hizkuntza euskara dutenek esan dute erabiltzen dutela gutxien KA (nagusiki) euskaraz egin bitartean.
- Testuinguru erdaldunagoetako euskaldunek testuinguru euskaldunagoetakoek baino gehiagotan erabiltzen dute KA (nagusiki) euskaraz aritzean.
- Testuinguru soziolinguistiko erdaldunagoetako euskaldunek euskaldunagoetakoek baino egoera komunikatibo gehiagotan ikusten dute hobeto KAren erabilera (nagusiki) euskaraz aritzean.
- Euskara H1 dutenek dute KAren erabilera egoera komunikatibo gehiagotan ekiditeko joera (nagusiki) euskaraz egin bitartean.
- Euskara-gaitasun altuagoa dutenek baxuagoa dutenek baino egoera gutxiagotan esaten dute erabiltzen dutela KA (nagusiki) euskaraz egin bitartean, eta alderantziz.
- Euskara-gaitasun altuena duten euskaldunek adierazi dute jarrerarik kontrakoena (nagusiki) euskaraz egin bitartean KAren erabilerarekiko eta gaztelaniaz gaitasun altuena duten euskaldunek, ordea, adierazi dute jarrerarik aldekoena (nagusiki) euskaraz egin bitartean KAren erabilerarekiko. Eta gaztelania gaitasun altuena

⁷ (Nagusiki) euskaraz egin bitartean KAren erabilerak eta (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean KAren erabilerak zehazki hau esan nahi dute: lehenengoak (nagusiki) euskaraz egin bitartean gaztelania txertatzeari egiten dio erreferentzia eta bigarrenak (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean euskara txertatzeari.

adierazi duten euskaldunek jarrera aldekoena adierazi dute (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean KAren erabilerarekiko ere.

- (Nagusiki) euskaraz aritzean KA okerrago ikusten dutenek (nagusiki) gaztelaniaz aritzean KA gehiagotan erabiltzen dute, eta, (nagusiki) gaztelaniaz aritzean KA okerrago ikusten dutenek erabiltzen dute gehiagotan KA (nagusiki) euskaraz aritzean.
- (Nagusiki) euskaraz egin bitartean gaztelania txertatzea gaizkien ikusten dutenek ikusten dute gaizkien (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean euskara txertatzea. Bestalde, harrigarria bada ere, (nagusiki) gaztelaniaz aritzean KArekiko jarrera okerragoa dutenek erabiltzen dute gehien KA (nagusiki) gaztelaniaz aritzean.
- Euskararekiko atxikimendua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta okerrago ikusten dute eta orduan eta gutxiago erabiltzen dute KA (nagusiki) euskaraz hitz egin bitartean, eta, era berean, euskararekiko atxikimendu hain handia ez dutenek edota gaztelaniarekiko atxikimendu handia dutenek ikusten dute hobekien eta egiten dute gehien KA (nagusiki) euskaraz egin bitartean. Bestalde, gaztelaniazko diskurtsoan euskara txertatzearekiko jarrera hobea dutenak hain zuzen ere euskarari balio handiena ematen diotenak edo gaztelaniari balio baxuena ematen diotenak dira.

Oraindik hainbat aldagai aztertzeko gelditu ziren, eta horietako batzuetan sakontzera dator lan hau.

3. IKERKETA-GALDERAK ETA AURREIKUSPENAK

Lan honen iparra (nagusiki) euskaraz egin bitartean euskaldunen KAren erabileran euskara-gaitasunak eraginik baduen eta baldin badu zer-nolakoa duen arakatzea da. Horretarako, hurrengo ikerketa galderak eta aurreikuspenak egin ditut:

1) Zein da euskara-gaitasunaren eragina KAren erabileran?

Euskara-gaitasun baxuagoa dutenek gaitasun altuagoa dutenek baino gehiago erabiliko dute KA kalean/jai giroan (Pérez, 2023). Bestalde, KA erabiltzen ez dutela diotenen euskara-gaitasuna altuagoa izango da gainerakoekin alderatuta (Pérez, 2023).

2) Zer harreman dago euskaldunen euskara erregistro kompetenziaren/erabileraren eta KAren erabileraren artean?

“Euskara batuaz” baino ez dakitenek (edo bakarrik “euskara batua” egiten dutenek) erabiliko dute gehien KA (Lantto, 2015, 2016, 2019; Ortega et al., 2016).

3) Ba al dago euskaldunen euskara-mailaren autopertzepzioaren eta KAren erabileraren arteko harremanik?

Euren euskara (maila) apala, ez-naturala... sentitzen dutenek KA egoera gehiagotan erabiliko dute (Lantto, 2015, 2016, 2019; Ortega et al., 2016).

4) Badago loturarik euskararen erabileraren eta KAren erabileraren artean?

Euskara-gaitasuna euskararen erabileran eragiten duen faktoreetako bat dela kontuan hartuta (adb.: Ortega et al., 2016; Eusko Jaurlaritza, 2023), eta gaitasunak KAren erabileran eragina izango duela aurreikusita, pentsatzekoa da euskararen erabilerak ere KAren erabileran eragina izatea; KA gehiago erabiliko dute euskararen erabilera baxuagoa dutenek eta KA gutxiago erabiliko dute euskararen erabilera altuagoa dutenek.

4. METODOLOGIA

Datuak biltzeko online galdetegi bat diseinatu nuen euskaraz, parte-hartzaileak euskaldunak izan behar zirelako (Pérez, 2022). Galdetegia sortzeko hainbat elebitasun galdetegi, lan edota autoinforme/neurketa estandarizatu aztertu nituen. Galdetegian 4 bloketan egituraturako 45 galdera zeuden: a) elebidunen profil psiko-soziolinguistikoa ezaugarritzeko galderak eta b) KAren erabilera aitortua eta KArekiko jarrerak eta usteak jasotzeko galderak.

Galdetegia abian jarri zen UPV/EHUko Gizakiekin lotutako ikerketarako Etika Batzordeko oniritzia jaso ondoren (M10/2022/103 kodea). Online galdetegia zabaltzeko, UPV/EHUko iragarkien ohola, sare sozialak eta posta elektronikoa baliatu nituen. Parte-hartzaileek modu boluntarioan parte hartu zuten ikerketan, horretarako baimena emanaz. Galdetegia UPV/EHUK eskaintzen duen *Encuestafacil* tresna baliatuta garatu zen, eta, "konfidentzialtasun-bermea" aktibatu zen, inkestaturen anonimata bermatzeko. Parte-hartzaileek 15' eta 30' bitarteko tartean erantzun zioten galdetegiari.

4.1. Parte-hartzaileak

Encuestafacil programaren bidez egindako online galdetegian guztira 880 pertsona sartu ziren, eta horietatik galdetegia 421ek hasi bazuten ere, gutxieneko

filtraketak egin ostean (aurrera begira baimena eman ez zutenak, 18 urte behera dutenak, erantzun kasik guztiak hutsik utzi zutenak eta horrelakoak kendu ostean), oraingoan 305 euskaldunen datuak aztertu ditut (lehengoan 244renak). Aipatu beharra dago Master Amaierako Lanerako 18-30 urte bitarteko gazteak baino ez nituela aintzat hartu, eta, oraingoan, 18 urtetik gorako guztiak hartu ditudala aintzat (betiere gutxieneko filtroak igarota).


1. Taulan ikus daitekeen bezala, parte-hartzaile gehienak 18-24 urte bitartekoak dira, gehixeago dira emakumeak gizonak baino, gehienak testuinguru erdaldunagoetakoak dira, lehen hizkuntza euskara (ere) badutenak eta, oro har, euskara-gaitasun altukoak.

Lan honetan euskara-gaitasunean foku berezia jarri dugunez, zinez aipagarria da 1. Irudian ikusten duguna; parte-hartzaileek gaitasun handiagoa dute euskaraz gaztelaniaz baino, irakurmenean ez, gainerako trebetasun guztietan bai.

1. Taula: parte-hartzaileak. Iturria: egileak egina.

		N	X (%)
ADINA	18-24	161	% 52,8
	25-30	116	% 38
	30 <	28	% 9,2
GENEROA	Emakumea	174	% 57
	Gizona	124	% 40,7
	Ez-binarioa	7	% 2,3
JAIOLEKUA	Testuinguru euskaldunagoetakoak	106	% 34,8
	Testuinguru erdaldunagoetakoak	186	% 61
	EHTik kanpokoak	5	% 1,6
BIZILEKUA	Testuinguru euskaldunagoetakoak	110	% 36,1
	Testuinguru erdaldunagoetakoak	172	% 56,3
	EHTik kanpokoak	21	% 6,9
LEHEN HIZKUNTZA	Euskara	127	% 41,6
	Gaztelania	58	% 19
	Euskara eta gaztelania	102	% 33,4
EUSKARA-GAITASUNA (1= maila apala; 5= goi maila)	Mintzamena	283	4,55
	Ulermena	283	4,78
	Idazmena	283	4,51
	Irakurmena	283	4,69
	Euskara-gaitasun totala	283	4,63

GAZTELANIA- GAITASUNA (1= maila apala; 5= goi maila)	Mintzamina	283	4,39
	Ulermena	283	4,63
	Idazmena	283	4,31
	Irakurmena	283	4,61
	Gaztelania gaitasun totala	283	4,49



1. Irudia: parte-hartzaileen euskararen eta gaztelaniaren gaitasuna. Iturria: egileak egina.

4.2. Datuen analisisia

Datuen analisi estatistikoak egiteko *SPSS* programa erabili dut. Horren bidez, Chi karratua, Kruskal-Wallis, U de Mann-Whitney, Wilcoxon eta Spearman analisi estatistikoak burutu ditut. Datuak ez dira normaltasunez banatzen eta beraz, test ez-parametrikoak erabili ditut. Aldagaien tratamenduari dagokionez, zenbait aldagai birkalkulatu ditut edo batzuetan eskalak erabili ditut horrek zenbait aldagai kuantifikatzeko aukera eman didalako, adibidez, KAREN erabilera.

5. EMAITZAK⁸

Emaitzak ikerketa-galderen eta aurreikuspenen atalean aipatutakoaren hurrenkera berean antolatu ditut. Ondoren, euskaldun parte-hartzaileen euskara-gaitasunaren arabera, KA erabiltzeko arrazoiak ekarri ditut emaitzak osatzeko.

5.1. Zein da euskara-gaitasunaren eragina KAREN erabileran?


Oro har, KA erabiltzen duten euskaldunen euskara-gaitasunaren (4,61) eta erabiltzen ez dutenen euskara-gaitasunaren (4,69) artean ez da alde esanguratsurik (U

⁸ Irudietan esanguratasun maila adierazteko izartxoak erabili ditut p estatistikoaren hurrengo balioen arabera: * = $p < 0,05$; ** = $p < 0,01$; *** = $p < 0,001$.

Mann-Whitney= 7109,500 ($n= 283$)= $Z= -1,939$, $p= 0,052$). Analisi bera egoera komunikatiboaren arabera eginez gero, ikusten dugu euskara-gaitasun aitortuaren batez bestekoaren joera mantentzen dela, hau da, euskara-gaitasun altuxeago adierazten diotela beren buruari KA erabiltzen ez dutela esaten dutenek, baina, ez dago gaitasun alde esanguratsurik KA erabiltzen dutenen eta ez dutenen artean, salbu eta kalean/jai giroan, hor bai, badago alde esanguratsua: kalean/jai giroan KA erabiltzen dutela esaten dutenen euskara-gaitasun totala KA erabiltzen ez dutela esaten dutenena baino baxuagoa da (4,60 vs 4,75= U Mann-Whitney= 4936= ($n= 252$)= $Z= -2,286$, $p= 0,022$).

KA erabiltzen dutenen artean, euskara-gaitasunak eraginik duen ala ez aztertuta, erlazio esanguratsurik ez dagoela ikusten da bi aldagaien artean (Rho Spearman ($n= 201$)= $-0,055$, $p= 0,436$), hau da, KA erabiltzen dutela esaten duten euskaldunen artean, euskara-gaitasunak ez du eraginik KAren erabilera maiztasunean.

Euskara-gaitasunaz ohiko trebetasunen arabera eta eskala bidez galdetu beharrean, euskara hutsez egiteko ahalmenaz galdetuta, emaitzak bestelakoak dira: KA erabiltzen dutela aitortzen dutenen artean euskara hutsean egiteko gai % 84,1 dira eta euskara hutsean asko kostata egiteko gai % 14,9; gainerakoak ez dira gai. KA erabiltzen ez dutela adierazten dutenen artean, % 96,6 euskara hutsean egiteko gai da eta % 1,7 asko kostata egiteko gai; gainerakoak ez dira gai. Aldea esanguratsua da ($X^2 = 7,566$ (2, $n= 259$)= $p= 0,023$). Egoera komunikatiboaren arabera, 5 egoeretatik 3tan aldea esanguratsua da: kalean / jai giroan (Kruskal-Wallis (2, $n= 252$)= 11,146, $p= 0,004$), klaseko ahozkoetan (Kruskal-Wallis (2, $n= 241$)= 11,834, $p= 0,003$) eta ikaskideen artean (Kruskal-Wallis (2, $n= 221$)= 7,416, $p= 0,025$). Hau da, oro har, euskara hutsean egiteko gaitasun handiagoa dutela diote KArik erabiltzen ez dutela diotenek, eta alderantziz. Bestalde, KA erabiltzen dutela esaten dutenen artean, euskara hutsez egiteko gaitasunak eraginik duen ala ez aztertuta, badago erlazio esanguratsua (Kruskal-Wallis ($n= 259$)= 11,723, $p= 0,003$); euskara hutsean asko kostata egiten dutenek erabiltzen dute gehien KA.



2. Irudia: parte-hartzaileek zenbat egoera komunikatibotan erabiltzen duten KA euskara hutsean egiteko gaitasunaren arabera. Iturria: egileak egina.


Ikerketa galdera honen erantzunarekin bukatzeko, aipatu beharra dago euskara-gaitasun baxuagoa duten euskaldunek euskara-gaitasun altuagoa dutenek baino nahiago dutela lagunartean KA erabili euskara hutsean egin baino (Spearman= -0,247 ($n= 259$)= $p < 0,001$).

5.2. Zer eragin du euskaldunen euskara erregistro kompetentziak/erabilerak KAren erabileran?

KAren erabilera aitortzen duten euskaldunen artean, euskara erregistro desberdinak erabiltzen dituzte: testuinguru komunikatiboaren arabera, euskara batu formala(goa) edo informala(goa) erabiltzen dutenak KA erabiltzaileen % 33,3 dira; euskalkia egoera informaletarako eta batua formaletarako erabiltzen dutenak KA erabiltzaileen % 24,9 dira; beti berdina, beti batuan egiten dutenak ere % 24,9 dira eta beti berdina, beti euskalkian egiten dutenak % 16,9. KA erabiltzen ez dutela esaten dutenen artean, % 40,2k euskalkia eta batua erabiltzen du, % 23,2k beti euskalkia, % 22k euskara batu formala(goa) edo informala(goa) eta % 14,6k beti batua. Aldea esanguratsua da ($X^2 = 11,207$ (3, $n = 283$)= $p = 0,011$), hau da, KA erabiltzen ez dutenak hurbilago daude euskalkitik batutik edo “batu hutsetik” baino.

Kalean/jai giroan ere, testuinguru komunikatiboaren arabera, euskara batu formala(goa) edo informala(goa) erabiltzen dutenak KA erabiltzaileen ($n = 188$) % 35,1 dira; euskalkia egoera informaletarako eta batua formaletarako erabiltzen dutenak % 25 dira; beti berdina, beti batuan egiten dutenak % 24,5 eta beti berdina, beti euskalkian egiten dutenak % 15,4.

3. Irudian ikusten den bezala, egoera komunikatibo gehiagotan erabiltzen dute KA, oro har eta salbuespenak salbuespen, batutik gertuago ibiltzen direnak batutik urrunago ibiltzen direnak baino.



3. Irudia: euskara erregistro erabileraren araberrako KAren erabilera (zenbat egoera komunikatibotan erabili KA). Iturria: egileak egin.

5.3. Zein da euskaldunen euskara mailaren autopertzepzioaren eragina KAren erabileran?

Lehenik eta behin, euskaldunen euskararekiko autopertzepzioaren eta euskara-gaitasun aitortuaren arteko harremana ikusiko dugu ideia nagusiak ekarriz (ideia hauen artean harremana oso esanguratsua da, $p < 0,001$); ostean, autopertzepzioak KAren erabileran duen eraginari erreparatuko diogu. Oro har:

- Euskara mintzamen gaitasun baxuagoa dutela diotenak sentitzen dira deserrosen euskaraz (eta gauza bera ikusten da euskara idazmen eta irakurmen mailarekin).
- Euskara mintzamen gaitasun altuagoa dutela dioteneke euren euskara naturalago ikusten dute (gauza bera euskara idazmen gaitasunarekin).
- Euren euskara ez-naturaltzat daukatela diotenak euskara mintzamen gaitasun baxuagoa dute.
- Beren euskarari zerbait falta zaiola uste dutenek euskara mintzamen gaitasun baxuagoa dutela diote (gauza bera euskara idazmen gaitasunarekin).
- Euskaraz eroso sentitzen ez direnak euskara mintzamen gaitasun baxuagoa dutela diote (gauza bera euskara idazmen eta irakurmen gaitasunarekin).

Egoera komunikatiboren batean KA erabiltzen dutela esaten dutenen artean % 82,1 ($n= 201$) eroso sentitzen da bere euskara mailarekin eta edozein hiztunekin noiznahi hitz egiteko gaitasuna duela sentitzen du. Era berean, % 71,1k euren euskara naturala dela sentitzen/uste du ($n= 201$) eta % 7,5ak ($n= 201$) markatu du espresuki bere euskara ez dela naturala, % 21,9k uste du bere euskara beste edozeinen euskararen parekoa dela ($n= 201$), % 23,9k ($n= 201$) pentsatzen/sentitzen du bere euskarari zerbait falta zaiola eta % 6,5 ($n= 201$) ez da euskaraz eroso sentitzen. KA egoera komunikatibo batean ere ez dutela erabiltzen adierazi dutenen artean, ordea, % 93,9 ($n= 82$) eroso sentitzen da bere euskara

mailarekin eta edozein hiztunekin noiznahi hitz egiteko gaitasuna duela sentitzen du, % 80,5ek ($n= 82$) euren euskara naturala dela sentitzen/uste dute, % 1,2k ($n= 82$) baino ez du espresuki markatu bere euskara ez dela naturala, % 32,9k ($n= 82$) esan du bere euskara beste edozeinenaren parekoa dela, % 3,7k ($n= 82$) baino ez du adierazi bere euskarari zerbait falta zaiola eta % 2,4k ($n= 82$) markatu du euskaraz ez dela eroso sentitzen. Gurutzaketa horien artean, hurrengo hirurak dira esanguratsuak: euren euskara mailarekin eroso(ago) sentitzen direnak dira KAren erabilera baxuena dutenak ($X^2 (1, n= 283)= 6,560, p= 0,010$); euren euskara naturalagoa dela uste/sentitzen dutenak dira KA erabilera baxuena dutenak ($X^2 (1, n= 283)= 4,256, p= 0,039$); eta euren euskarari zerbait falta ez zaiola uste dutenak dira KAren erabilera apalena dutenak ($X^2 (1, n= 283)= 16,121, p< 0,001$).

Euskaraz eroso sentitzen direnen artean, KA % 68,2k erabiltzen du eta % 31,8k ez ($X^2 (1, n= 283)= 6,560, p< 0,010$), hau da, euskaldunak beren euskara mailarekin eroso badaude ere, KA erabiltzen dutela diote. Bestalde, egoera komunikatibo gehiagotan erabiltzen dute KA beren euskararekin eroso ez dauden euskaldunak beren euskararekin eroso dauden euskaldunak baino. (1,52 VS 2,17, U Mann-Whitney= 3609, $Z= -2,864 (n= 283)= p= 0,004$).

5.4. Euskaldunen euskara erabilera eta kode-alternantziaren erabilera

Euskaldunen hizkuntza erabilerari dagokionez, 10 egoeratan erabiltzen duten hizkuntzaz galdetu zitzaien parte-hartzaileei (1= dena gaztelaniaz; 5= dena euskaraz); erantzunenak izan diren 5 egoerak hartu eta batez bestekoa egin dut: gurasoekin, gainerako senideekin, lagunekin, sare sozialetan eta administrazio publikoan. Balio duten 266 erantzun jaso dira hizkuntza erabilera totalen; guztira, 3,06ko batez besteko hizkuntza erabilerarekin (3= euskaraz eta gaztelaniaz).

Euskaldunen euskara-gaitasunaren, euskarari esleitzen dioten balioaren, euskara erabileraren eta KAren erabileraren artean harremana edo elkarreragina dago, izan ere:

Euskaldun parte-hartzaileen euskara erabileraren eta euskara-gaitasunaren artean korrelazio esanguratsua ikusten dugu: euskaldunen euskara erabilera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta euskara-gaitasun altuagoa dute hauek (Rho Spearman ($n= 266$)= 0,260, $p< 0,001$).

Era berean, 1etik 5era euskarari balio handiena esleitzen diotenek dute euskara erabilera handiena (Rho Spearman ($n= 266$)= 0,550, $p< 0,001$), eta, euskarari esleitutako balioaren eta euskara-gaitasunaren artean ere bada erlazio esanguratsurik: euskaldunen

euskara-gaitasun totala zenbat eta altuagoa izan, euskarari orduan eta balio handiagoa esleitu diote (Rho Spearman ($n= 283$)= 0,398, $p< 0,001$).

Bestalde, euskaldunen euskara-gaitasunari buruz jakiteko euskara hutsean egiteko ahalmenaz galdetuta, joera bera da: euskara gehien erabiltzen dutenak euskara hutsean egiteko gai direnak dira (3,18 egoeratan erabiltzen dute 5etik), gero euskara hutsean asko kostata egiteko gai direnak (2,18 egoeratan erabiltzen dute) eta azkenik euskara hutsean egiteko gai ez direnak (1,73 egoeratan erabiltzen dute). Aldea esanguratsua da (Kruskal-Wallis (2, $n= 241$)= 25,493, $p< 0,001$).

Amaitzeko, euskaldunen euskara erabilera zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta egoera gehiagotan erabiltzen dute KA, eta alderantziz (Rho Spearman ($n= 266$)= -0,371, $p< 0,001$). Egoera komunikatibo denetan ikusten da joera bera esanguratasun maila berean, salbu eta klaseko ahozkoetan, egoera horren eta euskararen/hizkuntza erabileraren artean ez dago erlazio esanguratsurik.

5.5. Euskaldunen euskara-gaitasunaren arabera KA erabiltzeko arrazoiak

KA erabiltzen dutela esaten dutenen artean, % 64,2k ($n= 201$) hitzak etortzen ez zaizkielako edo horrela errazagoa zaielako egiten dutela esaten dute; % 38,3k ($n= 201$) ez daki, horrela ateratzen zaie; % 24,9k ($n= 201$) hizkera informaltzeko; % 17,9k ($n= 201$) mintzakidea euskarara gerturatzeko; % 8,5ek ($n= 201$) euskara hutsez ez egiteko eta % 8k ($n= 201$) horrela hitz egitea beren identitatea delako.

Emaitza horiek sakonago aztertu ditut ikusteko ea parte-hartzaileen euskarazko gaitasunaren arabera arrazoi (des)berdinak ageri diren. Oro har emaitzek erakutsi dute gaitasun altuagoa duten euskaldunek baxuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dutela KA beren euskara informaltzeko (Rho Spearman ($n= 201$)= -0,142, $p= 0,044$), eta, euskara-gaitasun baxuagoa duten euskaldunek altuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dutela KA euskarazko hitzak etortzen ez zaizkielako edo horrela hitz egitea errazagoa egiten zaielako (Rho Spearman ($n= 201$)= 0,209, $p= 0,003$); euskara-gaitasun altuagoa dutenek gaitasun baxuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA mintzakideak euskarara gerturatzeko (Rho Spearman ($n= 201$)= -0,210, $p= 0,003$) eta euskara-gaitasun altuagoa dutenek baxuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA ez dakitelako edo horrela ateratzen zaielako (Rho Spearman ($n= 201$)= -0,159, $p= 0,025$).

Analisi hau bera egiten badugu euskara trebetasunaren arabera, hurrengoak dira emaitzak: euskara ulermen gaitasun altuagoa duten euskaldunek baxuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA euren euskara informaltzeko (Rho Spearman ($n= 201$)= -

0,149, $p= 0,035$); euskara mintzamen (Rho Spearman ($n= 201$)= -0,218, $p= 0,002$) eta idazmen (Rho Spearman ($n= 201$)= 0,209, $p= 0,003$) gaitasun baxuagoa dutenek altuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA euskarazko hitzak etortzen ez zaizkielako edo horrela hitz egitea errazagoa zaielako; euskara idazmen gaitasun altuagoa dutenek baxuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA mintzakideak euskarara gerturatzeko (Rho Spearman ($n= 201$)= -0,242, $p< 0,001$) eta euskara mintzamen gaitasun baxuagoa dutenek altuagoa dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA ez dakitelako edo horrela ateratzen zaielako (Rho Spearman ($n= 201$)= -0,202, $p= 0,004$).

6. EZTABAIDA

Lehenik eta behin, lan honetan berretsi da euskaldun gehienek KA erabiltzen dutela (nagusiki) euskaraz egin bitartean. Halere, askok ez dute KAren erabilera aitortu. Horren aurrean sortzen den galdera da ea benetan ez duten egiten ala (horietako batzuek) KAren praktika euskara-gaitasun faltarekin edo euskararen dekadentziarekin lotzen dutenez (Bullock & Toribio, 2009; Ortega et al., 2016) ez duten erabiltzen dutela onartzen. Baliteke, bestalde, horietako batzuek ere erabiltzea eta kontziente ez izatea.

KAren erabileraren eta hizkuntza gaitasunaren arteko lotura oso eztabaidatua (izan) da literaturan (adb.: Volterra & Taeschner, 1978; Poplack, 1980; Mad'arová, 2020). Lan honetan ikusi da hizkuntza gaitasun aitortuak baduela eraginik KAren erabileran. Hain zuzen ere:

1) Kalean/jai giroan KA erabiltzen dutela esaten dutenen euskara-gaitasun totala KA erabiltzen ez dutela esaten dutenena baino baxuagoa da. Bete da aurreikuspena (Pérez, 2022). Baina, oro har (egoera komunikatibo guztiak aintzat hartuta), KA erabiltzen ez dutela dioten euskara-gaitasun totala ez da KA erabiltzen dutela esaten dutenena baino altuagoa. Azken hau, beraz, ez dator bat aurreikusitakoarekin (Pérez, 2023). Euskara-gaitasunaz ohiko trebetasunen arabera eta eskala bidez galdetu beharrean, euskara hutsez egiteko ahalmenaz galdetuta, ikusten dugu KA erabiltzen ez dutenak KA erabiltzen dutenak baino gaitasun handiagoa dutela euskara hutsean egiteko; bereziki kalean / jai giroan eta klaseko ahozkoetan, eta azkenik ikaskideen artean.

2) Euskaldunek erabiltzen dituzten euskara erregistroei dagokienez, oro har, euskara batutik hurbilago dabilzanek dute KA erabiltzeko joera handixeagoa, halere, hau kalean/jai giroan azaleratzen da nabarmenen. Ñabardurak ñabardura, eta modu batean edo bestean, esan daiteke, beraz, aurreikuspena bete dela (Lantto, 2015, 2016, 2019; Ortega

et al., 2016). Batutik hurbilago ibiltzen direnak eremu erdaldunagoetakoak eta euren buruari euskara maila baxuagoa esleitzen diotenak izan daitezke (Ortega et al., 2016, 2019). Edonola ere, lan honetan ere ikusi dugu KA ez dela bakarrik euskara batua erabiltzen dutenen hizkuntza praktika, euskalkia daukatenean ere badelako.

3) Euskaldunen euskara-autopertzepzioaren eta KAren erabileraren artean, KAren erabilera aitortu baxuena dutenak hurrengoak dira: euren euskara mailarekin eroso(ago) sentitzen direnak, euren euskarari zerbait falta ez zaiola uste dutenak eta euren euskara natural(ago) dela uste/sentitzen dutenak. Aurreikuspena bete da (Lantto, 2015, 2016, 2019; Ortega et al., 2016). Oro har, euren euskara mailarekin gustura daudenek euren euskarazko diskurtsoan gainerakoek baino gutxiago(tan) txertatzen dute gaztelania.

4) Euskaldunen euskara erabilera zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta egoera gehiagotan erabiltzen dute KA, eta alderantziz. Aurreikuspena bete da. Gainera, egoera komunikatibo denetan ikusten da joera bera esanguratasun maila berean, salbu eta klaseko ahozkoetan, egoera horren eta euskararen erabileraren artean ez baitago erlazio esanguratsurik. Orain arte esandakoarekin bat datoz emaitza hauek, izan ere, euskararen erabilera aitortua, euskara-gaitasun aitortua eta euskarari esleitutako balioa zenbat eta euskararen aldekoagoak izan, orduan eta KAren erabilera urriagoa ikusten dugu. Erlazio esanguratsua egoera komunikatibo bakarrean ez da atera, hain zuzen ere, egoera formalenean, klaseko ahozko aurkezpenetan (Pérez, 2022; Aiestaran, 2023, Altuna, 2023). Horrek erakusten digu euskaldun askok badutela euskara hutsean egiteko gaitasuna egoera komunikatibo formalenetan, eta, hala ere, egoera informalene(t)an KA dezente erabiltzen dutela. Zergatik? Bada, emaitzak osatzeko, KA erabiltzeko euskaldunek markatutako arrazoiak jaso ditut. Euskara-gaitasun altuagoa dutenen eta euskara-gaitasun baxuagoa dutenen arteko alderaketa eginez, hurrengoak dira atera diren KA erabiltzeko arrazoirik esanguratsuenak:

Alde batetik, KA erabiltzen dutela dioten gaitasun altu(ago)ko euskaldun askok praktika hori euren hizkera informaltzeko, mintzakidea euskarara gerturatzeko edota ez dakitelako edo horrela ateratzen zaielako egiten dutela diote, bestalde, gaitasun baxu(ago)ko euskaldunek KA erabiltzen dute hitzak etortzen ez zaizkielako edo horrela errazago egiten dutelako / zaielako. Horrela, euskara-gaitasun baxu(ago)a dutenen kasuan, agerikoa da beren buruari esleitu dioten gaitasun baxuagoaren isla posiblea dela KAren erabilera. Baliteke KAren erabilerak hizkuntza jariotasun/gaitasun faltarekin ere lotura izatea, beraz (Portal Molinera, 2022). Eta zer gertatzen da beren buruari gaitasun

altua(goa) esleitu diotenekin? Bada, besteak beste, diote euren hizkera informaltzeko jotzen dutela gaztelaniara. Horrek bat egiten du hainbat lanetan aipatzen denarekin, esate baterako: Muñoa, 2002; Etxabe, 2005; Euskaltzaindia, 2008; Igartzabal, 2014; Lantto, 2015; Zulaika, 2019; Ibarra, 2020; Altuna, 2023. Euskaldun askok gaztelania euskara baino hizkera informalagoarekin lotzen du. Baina, horretaz gain edo horrekin batera, pentsa genezake euskaldun askoren gaztelaniaren aldeko gaitasun erlatiboak (Iurrebaso, 2023) edota euskara kalitateak (adb.: Euskararen Aholku Batzordea, 2004; ISEI-IVEI) euren buruari euskara-gaitasun altua esleitzen diotenei ere eragin ahal diela; euskararen eta gaztelaniaren arteko hizkuntza desorekak eragiten (ahal) duen bezala (adb.: Moreno Cabrera, 2015; Torrealdei, 2018).

Bestalde, euskara-gaitasun altua(goa) dutenek badirudi badutela mintzakidea euskarara gerturatzeko joera edo jarrera, eta horrek lotura izan dezake euskararen alde egotearekin edota euskararen alde egitearekin; txosten honetako parte-hartzaileen euskara-gaitasunaren, euskara erabileraren eta euskararekiko atxikimenduaren artean “harreman positiboa” agertzen da, adibidez: euskara-gaitasun altuagoa dutenek euskara gehiago erabiltzen dute eta euskarari balio handiagoa esleitzen diote. Hizkuntzari ematen zaion balioak hizkuntza identitatea isla dezake eta horrek ondorioa izan dezake hizkuntza ekoizpenean (adb.: Lantto, 2015). Gainera, gaitasun baxuagoa duten euskaldunek euskara-gaitasun altuagoa dutenek baino nahiago dute lagunartean KA erabili euskara hutsean egin baino.

Badaude KA erabiltzaileen artean bi hizkuntzak konbinatzeko gaitasun altua duten hiztunak eta horiek esfortzurik gabe aldatuko dute hizkuntzaz. Beste kasu batzuetan, ordea, arrazoia kontrakoa izan daiteke; euskaraz gaitasun apalagoa izatea eta beste hizkuntza honetan hitz egin bitartean une batzuetan hobeto kontrolatzen duten gaztelaniara jo behar izatea. Horri, gainera, egoera komunikatiboaren araberako hizkuntza erosotasunaren eta egokitasunaren aldagaia ere gehitu behar zaio.

Eztabaidarekin bukatzeko, lanak izan duen mugarik nabarmenena aipatu nahiko nuke, laginaren izaera, alegia. Izan ere, jasotako euskaldunen artean asko euskara-gaitasun altukoak dira, lehen hizkuntza euskara (ere) badutenak... eta horrek ez ditu egoki islatzen gaur egungo euskaldunak.

7. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Hasteko, euskaldun gehienek KA erabiltzen dute (nagusiki) euskaraz egin bitartean, nahiz eta askok ez duten KA erabiltzen dutenik aitortu. Arakatu beharko genuke KA erabiltzen ez dutela esaten duten guztiek benetan KA erabiltzen ez duten.

Lan honekin (ere) hizkuntza gaitasunaren eta KAren erabileraren arteko harremana konplexua dela frogatu da; badago harremana, baina ez beti eta ez edonolako. 1) Oro har, euskara batutik hurbilago dabilzanek dute KA erabiltzeko joera handixeagoa. 2) KA erabiltzen ez dutela dioten euskara-gaitasun totala ez da KA erabiltzen dutela esaten dutenena baino altuagoa, baina, kalean / jai giroan KA erabiltzen dutela esaten dutenen euskara-gaitasun totala KA erabiltzen ez dutela esaten dutenena baino baxuagoa da. Bestalde, KA erabiltzen ez dutenak KA erabiltzen dutenak baino gaitasun handiagoa dute euskara hutsean egiteko, bereziki kalean / jai giroan eta klaseko ahozkoetan, eta azkenik ikaskideen artean. 3) Euren euskara mailarekin gustura daudenek ez daudenek baino KAren erabilera apalagoa dute. 4) Euskaldunen euskara erabilera zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta egoera gehiagotan erabiltzen dute KA, eta alderantziz.

KA erabiltzeko euskaldunek markatutako arrazoiei dagokienez, esanguratsuenak hurrengoak dira: euskara-gaitasun altuagoa dutenek, baxuagoa dutenen aldean, diote KA mintzakidea euskarara hurbiltzeko, euren hizkera (euskara) informaltzeko edota horrela ateratzen zaielako erabiltzen dutela, eta, euskara-gaitasun baxuagokoek, ordea, (altuagokoen aldean), KA hitzak etortzen ez zaizkielako edo horrela egitea errazagoa zaielako erabiltzen dutela diote.

Aurrera begira, lan honetako parte-hartzaileen profila zabaltzea litzateke erronketako bat, izan ere, euskara-gaitasun / -erabilera altuko... profilak ez ditu nahikoa ondo islatzen egungo egoera soziolinguistikoak eskaintzen dituen askotariko koloreak (ikus VII. inkesta soziolinguistikoa). Bestalde, interesgarria litzateke euskaldunen erantzun kontzienteak (hain) kontzienteak ez diren datuekin alderatzea edo osatzea, euskaldunen KAn sakontzen jarraitzeko eta KAren erabilerari lotutako ezaugarri psiko-soziolinguistikoak xehetasunez aztertzen jarraitzeko asmoz.

Txosten honetarako erabili den galdetegitik atera gabe, bestalde, oraindik badira aldagai batzuk aztertzeke edota gurutzatzeke geratu direnak: adinaren, ikasketa-mailaren eta generoaren eragina KAren erabileran / KArekiko jarreran; euskararen eta gaztelaniaren jabekuntza-adinaren edota jabekuntza-moduaren eragina KAren erabileran

/ KArekiko jarreraren; hizkuntza erabileran izandako aldaketen eragina KAren erabileran / KArekiko jarreraren; ikasketetako hizkuntzaren eragina KAren erabileran / KArekiko jarreraren; KA zenbateraino erabiltzen delako ustearen eta KAren erabileraren arteko aldea. Halaber, txosten honetarako KAren erabilerarekin gurutzatzeko erabili diren aldagai berak erabil daitezke KArekiko jarrerarekin gurutzatzeko. Eta ezin ditut ahaztu galdetegiko galdera irekiak utzi dizkidaten erantzun, iruzkin kualitatiboak. Arretaz aztertzea mereziko luke.

Beste alde batetik, txosten honetarako egin diren gurutzaketetan, euskara-gaitasunarekin batera, balegoke kontuan hartzea euskaldunen testuinguru soziolinguistikoa eta H1a ere bai. Era berean, (nagusiki) gaztelaniaz egin bitartean KAren erabilera emaitzak (nagusiki) euskaraz egin bitartean KAren erabilera emaitzekin alderatu litezke 2022ko Master Amaierako Lanean hasitakoaren bidetik.

Txostenarekin bukatzeko, aipatu nahi dut euskaldunen arteko KA gertatzen den fenomeno delat, arrazoiak daudela praktika horren atzean eta interesgarria izan daitekeela euskaldunen KAren erabileran arakutzen jarraitzea, besteak beste, argitzen joateko, ahal den neurrian behintzat, euskararen biziberritze prozesuan KAren erabilerak zer paper jotzen duen edo joka dezakeen, arriskuak, kezkak, “aplikazio” posibleak, onurak eta denak aintzat hartuta betiere (adb.: Lerman et al., 2019; Mad’arová, 2020). KAren inguruan ebidentzietan oinarritutako diskurtso multzoak, mezu multzoak eraikitzea eta garatzea interesgarria eta baliagarria izan daiteke euskararen biziberritzeari begira nahiz euskararen ahozko komunikazioari begira. Oro har, ebidentzia sendoagoa falta zaigu euskaldunen KAren nondik norakoetan sakontzen jarraitzeko, eta horrelako azterketak egitea eta aintzat hartzea funtsezkoa da hizkuntza fenomeno edo praktika honen inguruan esku hartzen edota diskurtso publikoak egituratzen hasi baino lehen, beste ezeren aurretik, lehendabizi fenomeno bera ahalik eta ondoen ezagutzea komeni baita.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aiestaran, M. (2023). Beasaingo gazte hizkera aztergai, testuinguruaren eragina kode alternantzia [Gradu Amaierako Lana].
- Aldalbahy, K. K. (2023). The Relationship between Code-switching and the Level of Language Proficiency in the Second Language of Saudi Female Students. <https://awej.org/wp-content/uploads/2022/11/20.pdf>
- Aldekoa, A., Manterola, I. & Idiazabal, I. (2020). A trilingual teaching sequence for oral presentation skills in Basque, Spanish and English. *The Language Learning Journal*. DOI: 10.1080/09571736.2020.1741666
- Altuna, J. (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta*. Donostia: UPV/EHU [Doktore tesia].
- Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak- Hizkera gazteak. <https://www.argia.eus/albiste/euskararen-erabilera-12-grafiko-kezkagarri> 68. 167-183.
- Amonarriz, K. (2015). Ahozkoasuna soziolinguistikaren behatokitik. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 96. 103-127.
- Amonarriz, K. (2018). Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea. HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondoko irakasgaia. Donostia: Asmoz Fundazioa & UPV/EHU.
- Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2019). Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketaren baten behin-behineko emaitzak. In *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: ekarpen berriak euskararen ikerketari= nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (47-61. or.). Iruña: Gobierno de Navarra. www.culturavarra.es/uploads/files/fontes50urte.03.pdf
- Anderson, T. K. & Toribio, A., J. (2007). Attitudes towards lexical borrowing and intra-sentential code-switching among spanish-english bilinguals. *Spanish in context*, 4 (2), 217-240.
- Artetxe, M. (2023). Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna [Ideologías lingüísticas. Una herramienta analítica para incidir en la revitalización del euskera]. *Fontes Linguae Vasconum*, (136), 457-482. <https://doi.org/10.35462/flv136.8>
- Balam, O. & Shelton, J. (2023). The use of Spanglish in Latin Rap Music: An analysis of inter- and intraclausal code-switching. *Bilingual Review/Revista Bilingüe*, 35(1), 32-52. <https://www.bilingualreviewjournal.org/index.php/br/article/view/474>
- Balda, O. (2022). *Gazteen hizkeraren ezaugarriak: euskaraz “gaziki” hitz egiten ikasten*. UPNA.

- Brdarević-Čeljo, A., Ahmetović, E. & Bajić, E. (2021). Variation in attitudes towards codeswitching and codeswitching frequency among multilingual speakers. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 1-16. <https://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/01434632.2021.1983580>
- Barreña, A., Ezeizabarrena, M. J. & García, I. (2011). La influencia del grado de exposición a la lengua en la adquisición del euskera (8–30 meses). *Infancia y Aprendizaje*, 34(4), 393-408. <https://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1174/021037011797898430>
- Hernandez, J. M., Beitia, I., Ozaita, J. & Santamaria, A. (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*.
- Bereziartua, A., Guirado, O. & Alonso, I. (2023). Lehen Hezkuntzako haurren lagunarteko hizkera aisialdian: erdaren eragina bat-bateko adierazkortasunean. <https://euskeraikerketa.euskaltzaindia.eus/index.php/euskera/article/view/263>
- Bullock, B. E. & Toribio, A. J. (Eds.). (2009). *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511576331>
